

# «HERRIAREN ALDE»

«HERRIAREN ALDE» duzu anarkista usaiako Mao-zale dan talde frantses baten agerkaria (Gauche Proletarienne) Agerkariaren zuzendariak Epai-mahaiaren aurrean agertu behar izan dute Estaduraren aurkako jokuaren erori diralako. Bapatzen Paris-ko kaleetan, garai bateko sorginku-asuko jaialdien atzera, mistika-indarag eraginda polizi ta gazteen arteko burrukaldia eratu da. Saint Jacques kalean sua ageri da, polizia ikasleen altxerik dabil eta nun nahi dago arnasa galarazteko he haina gazusaia. Automobilen klaron-otsa ta eskaparateko kristalen lertzeak dakarren daradarak sorgin-jaieri giro berezi bat ematen diote.

Baina zer dala ta «Herriaren Alde» zuzentzen dutenak Epalearien aurrean jarri ote dituzte? J. P. Sartre bera, agerkariaren zuzendari izanik, besterik bezela berari ere eskua gainean jarri ez diotelako kezartzen zan. «Herriaren Alde» Hitzaren ordez Maorena agertzen duen katekismu dauzu.

Agerkaria kontseilluz beterik dago ta norberaren esku ezer gutxi ta zapal-zailleen eskuetan dana dagoelako, era guzietako sabotajeak erabiltzeko eskatzen du. Hala lantegiko marxza ondatzen edo hermitania oker erabiltzen duzanean, nagusiak ondatzen omen dira.

Erabiltzen dituzten arrazoibide guziak erlijijoso-kutsuz nahasturik daude. Erdi-Aroan pekatuak abere zikiñen antzera margotzen zizutenen eran, gaurko nagusiak, P. C. F-ekoak eta U. R. S. S-eko sobietarrak narrazki iguingarriak besterik ez dira Gauche Proletarienne taldea osatzen dutenentzat. Hone danak «nazitarrak» eta danak labain berdinaz ebaki behar omen dira. Taldearen gudatea alemanen alrka azpiko lanean jardun zutenen burrukaren jarraitzea dala diote. Kapitalistak, sindikalari-buruak eta bertako komunistak, gurutze garmatuekin edo bage, nazitarren aurteolaz horniturik ikusten dituzte.

Ze eratako burruka da hori? Ze-

rukoa bearko, lurrekoa ez bait da. Ona ta txararen artean, edo aingerua ta deabruaren arteko burrukak ez dira Frantziako politika-burrukaren irudi egokiak. Bi sail hust arkiuzen dian guda-lekurik ez duzu nehoiz ikusiko. Gaitza orokorra ez da garbira agertzen. Gu ere ez ahal gauda gaitz hortaz kutsaturik? «Dena ala ezer ez» hitzekin jantzia dagoen abestiak dion bezela.

Bitartean, hor duzu herria. Estatu frantsesak zenbait taldetxoren jokoaren aitzakiaz, hartzen ariden arriku haundiko erabakiak isil isilik onhartuaz.

Hor, Komunista Alderdia, eragileen protestarik gabe estalinismo itsuenearan jarraitzeko asmo berezietekin.

Hor. C. F. D. T. bera, klasen arabrah cuandora cdlau dacrd uad ra teko burruka ametiurik, bere kezka politikoiari irtenbide bat arkitu ezin da.

Zenbait taldetxo, borondate onenenez, egokera baten aldaketaren atzetik dabilzala, bera sendotzen dute. Gizarteko indarren egokitasun larria leertzeko ta beste egokitasun aurre-ratuagora eltzeko, jakin behar da egokitasun larri harek duan alderdi ahulenean jotzen.

Zenbait Alderdi aurrerazalek Okzidenteko xistematan egokitu badira, taldetxoak ere gaur daramikiten jokoerakin xixtima bera sendotzeko bidean ez ote diran ari, galdetzen diot nere buruari.

Orain dala bi urte, maiatzak ekarri zizkigun zurrunbilloak larri-aldi baten agerpenak dira. Frantziako xixtima ren desegokitasuna begietara agertu da. Desegokitasun horrek gaurko xixtima galduko du, baina baldintza hau betetzen bada, alegia, gizartearen desegokitasuna aztertu ondoren gizarteko indarren arteko egokitasun aurreratuago baten billa ahalegintzen bagera.

Dena ala ezer ez, aukera ximplegia agertzen da.

D. IZA

# « L ' A V E U »

«Z» filma ikusgarria eman ondoren (Greziako Lambrakis-arazoaz), bildo beretik orain ere, Costa Gavraxe beste filma ikusgarri bat eman digu: «L'Aveu» (= «Aitorra-euskeraz»). Oraingo honetan Txekoslovakia Slansky-hauziak. Honetan eta hartan lehen mailako artista batek darama mintzaren haria: Yves Montand.

Aste hauetan estrainaturik, harrabotsa ez da tipia izan Europen, Filma funtsean politikoa izanik, politik ataldek eta alderdiek hitzegin dute goratik. Gehienek laudorioz egin dute, «Z»-rekin bezala. Baina «Z»-ri buruz faziastak aranguratu ziren bezalaxe, «L'Aveu»-ri buruz komunista baserretu dira. Eta «L'Humanité»-ren bidez, Costa Gavras eta Yves Montand salatu dituzte, «anti-komunismoan» erori direla esanez. Hau sinisten zail da, halere, bai Costa Gavras eta bai Yves Montand ezagunak bait dira nun-nahi aurrerazale eta sozialista gisa.


Egia esateko, bi filmen joera-batasuna igartzen ez da zaila: bietan Costa Gavrasek erresuma modernoen burokrazia kupidagabea salatzen du. Baina hori salatzerakoan, ez du ortodoxia-langarik kasko barruan; eta dagoen lekuan agerretzen du: bai Ekialdean eta bai Mendebaldean. (Nahiz Londonek, «L'Aveu»-ren azken segitzetan, sozialismoan duen itxaropena argi eta garbi adierazi).

Larriena, bestalde, ez da egia agertzea, egia izkutatuta nahi izatea baizik.

Artur London konfiantzako gizona zen Txekoslovakian 1951 arte: Brigada Internazionalen eta Frantziako Erresistentzian ibilia, Mathausengo kontzentrazio-landan preso egona, beti ere komunista alderdiaren jarraitzaile, Txekoslovakia Atzerriko Ministro-orde zen urte hartan. Bapatzen, eta Stalinekin askotan egin ohi zuten bezala, hamalau buruzari harrrapatu zituen Moskutik etortritako polizia izkutuak; eta presondegituak Txekoslovakia bereko zuzendari nagusi izan arren, bertako inork ez zekien ezer: «goitik» omen zetorren agindua. Horra hor dena. Horrela altxatu zuten preso, hamalauen artean, Slansky bera: alderdiko sekretario-burua hain zuzen. 1951-eko «purga» hartan hamaika alderdiko aintzindari hilerazi ziren. Artur Londonek bere burua salbatu zuen; eta gartzelatik irteazten idatzi zuen «Aitorra» liburuari esker dazkigu Pragoako hauzi famatuaren xehetasunak.

Tortura-mota eta etsiarazpide guziak erabili ziren presoek aitorrarazteko; eta eten gabe 22 hilabetetan barrera London zigortu eta akituaz, azkenean honek, hauzikide guziek bezala, asmazio hutsa zen bere kontrako salakuntza zentzugabea goitik behera «aitortu» zuten: trotskismo, burgeskeria, amerikatarrekiko salarritza, naziokeria burges-txikia, dena nahasirik.

Sinistu ezin ditezkeen muturretarraino joan ziren hauztara eraman-dakoak; hauziaren egunean, eta aurretik buruz ikasitako guzi-guzia xuxen-xuxen birresan ondoren (ikastolan ipuinak buruz eta hitzez hitz esaten diren bezalaxe), eskeini zitzaizen defentsa-eskubidea ere arbiatu egin



«L'Aveu» filmaren bi zati.

zuten: «kinka gaizto bat pasatzen ari da artidua, eta isil zaitzete: barkatuak izango zarete». Tortura-arrastorik ez zuten apatu; eta, horrela, «garbiki», heriotzara joan ziren, berron eginez arras damaturik... Stalinismoaren belzkeria osoa agertzen zaigu hor nabarmenik. Frantz afkak (Pragatarra hau ere!), berriz piztuko balitz ere, ez zukean sinistuko! Asmatu zuten guzia baino harutzago.

Artur Londonek nemezatek berak ere bere esker-gutuna bidali zien agintariei, senarraren okerreakiak gaitzesiz; eta hungikarria da benetan unea, lantegietan gutun hori irraitian irakurtzen dela ikusten duelarik.

Dena egin dago, horretara: gauza «garbi» ater da, Stalinen purga guzietan bezala. Umezurtz erugabe agertzen zaigu Maquiavelo!

Filmaren funtsa, beraz, ez da jasaten arina: gordin agertzen da stalinismoa bere basakerian. Eta hau ez dute denek gogoko. «Hori konfidentatua izan zen», diote. «Zertarako berri horretaz ari izango? Klase-etsaiaren jokoa egiten dugun».

Nork egiten du, ordea? Geuk ala stalinistek?

Alde batekik, izugarrikeria horiek (bitimik miloika kondatzen dira) salatzeko Krutxefek behar izan zuten ausardia neurtzen eta eskertzen ez dakigula uste dut. Zernahi esanagaitz (eta hau trotskistek ez lidateke gaitzesiko) Komunista Alderdiaren parte haundi bat stalinismoan zegoen: Erussian eta Erusitik at. Adorea behar zen, benetan, burokraziaren hitzaleiei argi eta garbi oltzarteko.

Baina bestetik, eta hauxe da in-

portanteena ene ustez: nola uler ditekete (marxismo-leninismoaren ortodoxiatik esan nahi dut) Kondairak Auretik eta alienazio guzietatik atera behar gindukene Alderdi argitsuak, hasera-haseratik halako munstrokeriatan erortzea? Kapitalismoa eruzi ondoren, agintaria ez bait da, omen, herriaren ordezkaria baizik! Nork sinetsiko du langileriak stalinismoa nahi duela?

Ideen erosokeria maite edo behar dutenek zer esango duten badakit: «Antikomunista da! Vade retro!». Ezaguna da madaurkazio hori: fanatikotik talde guzien hazkurria da. Ez du problema agertzen, ordea.

Kristauen Ebanjelioak XIII-garren mendean eman zuten Inkisizioa. Marxismo-leninismoak, ordea, sortuta segituan eman G. P. U. eta «garbiketarak»: Alain Krivine trotskistak aste honetaz argitu duenez, 1920-etik 1924-erako urteetan hasi zen stalinismoa Komunista Alderdiak nagusitzen, Hamabi mendeetatik hurrun gaude!

Halere Erdi-Aroko Inkisizioa Fedearren kontra mintzo da. Stalinismoa, beraz, Ebanjelio berrien kontra mintzo da bortizki. Eta aitorzke kementa eskatu beharra dago. Nik bederen hori eskatuko nuke. Mundua behin eta betirako dena argitu ez dakigula uste dut. Zernahi esanagaitz (eta hau trotskistek ez lidateke gaitzesiko) Komunista Alderdiaren parte haundi bat stalinismoan zegoen: Erussian eta Erusitik at. Adorea behar zen, benetan, burokraziaren hitzaleiei argi eta garbi oltzarteko.

Baina bestetik, eta hauxe da in-

LARRESORO

## 25 Merkenak

### Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserritar burtsuak, Borebiziak aragi pillak; gafiara esne putzuak, Otek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

## FANDERIA

ERRENTERI

# AZKENEKO EGUNAK!!!

«IZAGARRIZKO TRESILLO SALGAIK»

TRESILLOAK, SOFA-OEAK, LO-GELAK, ETA ABAR...

PREZIOAK ORAINDIK MERKEATUGOAKOAK JARRAITZEN DUTE...!!!

ENTZUN PROBINTZIKUOK! Montaketa eta etxera eramatea ez degu kobratzen. UTSEAN!

Amuebladora COMERCIAL HISPANIA, S. L.

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Choneitia